

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Turismoa sustatzeko kanpaina batek irratiko eta telebistako 22 aurkezle gonbidatu ditu Nafarroara ihesaldi bat egitera

Matías Prats, Carlos Sobera, Ane Igartiburu eta Jaime Cantizanak jasoko dute gonbidapena, besteak beste

Miércoles, 20 de julio de 2011

Nafarroako Gobernuaren Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako Departamentuak tamaina errealeko beren irudiaren argazki bat bidali die telebistako eta irratiko 22 kazetari eta aurkezleri, Nafarroa ezagutzera ihes egiten duten bitartean beren lantokian jar dezaten. Ekintza hori Turismoa Sustatzeko "Nafarroako Erresuma" 2011 Marketin Planaren esparruan eta, zehazki, "Geratu egingo zara" kanpainaren barnean egin da, eta atentzioa ematea, sinpatia sorrarazi eta Nafarroak turismo-helmuga gisa duen interesa sustatzea ditu helburu.



Nafarroako turismo-marketineko planaren barnean Matías Prats aurkezleari bidalitako gonbidapena.

Beren argazkiak jasotzeko aukeratu diren 22 aurkezleak telebistako eta irratiko kate desberdinetakoak dira, eta estatu mailan ikusle edo entzule kopuru handia duten programak aurkezten dituzte, bai albisteak bai eta lehiaketa eta magazinak ere. Televisión Española-tik aukeratuak izan dira Ana Pastor, Ane Igarteburu, Mariló Montero eta María Avizanda. Antena 3-etik, berriz, Matías Prats, Karlos Arguiñano, Carlos Sobera, Susana Griso, Jaime Cantizano, Florentino Fernández eta Pablo Motos aukeratu dira. Cuatro telebista-katetik Jesús Vázquez eta Hilario Pino hautatu dira. Bestalde, Telecinco-n hautatuak María Teresa Campos, Jorge Javier Vázquez, Ana Rosa Quintana, Jordi González eta Pedro Piqueras dira. La Sexta-tik Gran Wyoming, Buenafuente eta Helena Resano aurkezleek jaso dute gonbidapena eta, azkenik, Cadena 100 irratik-katetik Javi Nieves-ek.

Horietako bakoitzak oinarrian 80 x 80 zentimetro dituen erabat pertsonalizatutako kutxa bat jaso du Kutzaren aurrealdean, esate baterako, Matias Pratsen kasuan honela dio: "Matías, jada ez duzu aitzakiarik ihes egiteko". Kutxa irekitzean, hartzaileak "Ihes egin Nafarroa ezagutzera" irakurriko du eta, barnean, tamaina errealko bere irudia duen euskarri bat topatuko du jarraibide batzuekin. Bertan irudia beren lanpostuan jartzeko, irudiaren atzean dagoen maleta hartzeko eta asteburu batez Nafarroa ezagutzeko animatzen dira.

Kutzari erantsitako ekipajea kartoizko sustapen-maleta bat da; jarraibide batzuk ditu hura balioztatu eta Foru Erkidegoan ostatua eta gosaria barnean hartuko dituen egonaldi batez gozatzeko. Horrekin batera, hainbat baimen ditu turismo-jarduera desberdinei onura ateratzeko.

GAPS publizitate agentziak koordinatu eta burutu duen ekintza honen bitartez lortu nahi da, kazetariak Nafarroa ezagutzera etortzeaz gain, jasotako irudia beren lanpostuetan jartzea eta beren programan Nafarroa aipatu ahal izatea.

Albiste hau twitter-en agertu bezain laster, Helena Resano 14:00etako La Sexta Noticias albistegiko aurkezleak baieztatu egin du etxean paketea jaso duela eta zorionak eman dizkio Nafarroako Gobernuari ekimen honengatik.



Carlos Sobera aurkezlearentzako sustapen-kutxa.